

**FORU ALDUNDIETAKO HAUTESKUNDEETARA
AURKEZTEN DIREN ALDERDI
POLITIKOENTZAKO PROPOSAMENAK**

2015eko maiatzak

**“EREDU SOZIAL JUSTU ETA
BIDEZKOAGO BATEN ALDE”**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

Sarrera	3
Konpromiso konkretuak	4
1.-Zerga-politika	4
2.-Aurrekontu-politika eta politika publikoak . . .	4
3.-Eskubide sozialak	5
4.-Azpiegiturak eta ingurumena	5
5.-Enplegu-politika	6
6.-Demokrazia areagotzea, gardentasuna eta gizartearen parte hartzea	7
7.-Zorraren ikuskaritza	7
8.-Euskara	7
9.-Arlo publikoko lan-baldintzak	8

SARRERA

Maiatzaren 24an EAEn foru- eta udal-hauteskundeak izango dira. Agiri honetan ELAk proposamen sorta bat luzatzen die Foru Aldundietako hauteskundeetan parte hartuko duten alderdiei. Beste dokumentu bat ere egin dugu Nafarroako Gobernuari buruz egindako proposamenekin.

ELAk dei egiten die hauteskunde hauetan aurkeztuko diren alderdi politikoei hainbat konpromiso har dezaten, agintera iritsiz gero egingo luketeenari buruz. Hots, eman dezatela hitza erabaki jakin batzuk hartuko dituztela pertsonen bizi-kalitatea, enplegua eta justizia soziala hobetearren. Ez ditugu arlo guztiak aipatuko, baina gure nahia da lan-ildo aski argia marraztea.

Azken urteetan euskal biztanleriaren egoerak okerrera egin du: langabezia, prekarietatea, desberdintasuna eta pobrezia gehitu egin dira, botere publikoek aplikatu dituzten doitze politiken ondorioz.

ELAren ustez ezinbestekoa da ekintza politikoan gai sozialak lehenestea, eta honek aplikatzen ari diren politikak zeharo aldatzea eskatzen du; Aldundiek, dituzten esku-menak medio, batik bat zerga-politika, protagonismo handia dute honekiko. Badakigu beharrezko aldaketa gertatuko bada botere ekonomikoari, finantza-sektoreari aurre egin behar zaiola, eta honek, halaber, eskatzen du gauzak egiteko modua aldatzea hauteskunde ostean aginduko dutenen aldetik.

KONPROMISO KONKRETUAK

ELAk foru hauteskundeetan aurkezten diren alderdiei proposatzen dizkien konpromisoak honakoak dira:

1.-ZERGA-POLITIKA

- Iruzur fiskalaren jazarpena. Soldatak ez diren errenta guztiak gehie- nez 4 urteko epean ikuskatu. Honetarako behar den giza-baliabide kopurua kalkulatu eta epe zehatzetan planifikatu.

- Ikuskaritzaren lan-metodoak aldatu, iruzurrik larrienera bidera- tzeko. Ikerketa lehenetsi, egiaztatze hutsaren ordeztu. Honetarako plan konkretu bat aurkeztu.

- Iruzurraren aurkako bulego bat sustatu, diziplina eta erakunde arte- koa, zeinak ogasunen, polizia fiskalaren eta fiskaltzaren ekintza koordi- natuko duen.

- PFEZaren erreforma: Errenta guztien zerga (baita kapitalarenak ere) gutxienik laneko errenten gainekoekin parekatu; galdutako progresibita- tea berreskuratu (%56ko tasa marjinal maximoa barne); errenta irregula- rrentzako salbuespenak ezabatu eta kenketarik erregresiboanek desagerrarazteko egutegi konkretua ezarri.

- Sozietateen gaineko Zergaren erreforma: %35eko tasa nominala finkatu; gutxieneko zerga efektibo eta berehalakoa %24an finkatu; kenketa fiskalak mailaka ezabatu.

- Informazioa eta parte hartze soziala: Ekitaldien arteko informazio funtsezko, xehetu eta alderatzeko modukoa eskaini, zerga bakoitzaren kudeaketako parametro nagusiei eta ikuskaritzaren lanari buruz; iruzur fiskalaren inguruko aldizkako ikerketak egin.

- Arduradunek erantzukizun politikoak beren gain hartzea, opor fiska- lak eta antzeko kasuak direla eta.

- Beharrezko erreformak bultzatu zergak Eusko Legebiltzarrean era- baki daitezten, funtzio tekniko eta ikuskaritzaren eginkizunaren gaineko kontrola alderdikoia izan ez dadin.

2.-AURREKONTU-POLITIKA ETA POLITIKA PUBLIKOAK

- Aurrekontu-politika bertan erabakitzea, espainiar Estatuan erabaki eta adosten diren defizit mugak onartu gabe. Azken urteetan Foru Aldundiek, Eusko Jaurlaritzak bezalaxe, estatuko aurrekontu-markoa

onartu dute, horrela beren eskumenak politikoki onartu ezinako moduan baztertu dituztelarik; honek eragin sozial larriak izan ditu. Esaterako, 2015ean ontzat eman dute zero defizita duten aurrekontuak egitea, Rajoyren gobernuak erabakitako aurrekontu-egonkortasun exijentziei men eginez.

- Espainiar Gobernuak ezarri nahi duen murrizketarik ez onartu (zerbitzu sozialak, pertsonala, etab.)
- Politika publikoak pentsatu, egin, aplikatu, jarraipena egin eta ebaluatzerakoan ikuspuntu feminista aintzat hartu.

3.-ESKUBIDE SOZIALAK

ELAk zerbitzu sozialen sistema publiko eta doako bat eskatzen du, eta honekin batera:

- Lurralde bakoitzean menpeko diren pertsona guztiei aitortzea beren egoera artatzeko zerbitzua izateko eskubidea, sistema publiko, unibertsal eta doako baten bidez.
- Eskubide honen aitortpena Eusko Legebiltzarrean bultzatzea, baita Zerbitzu eta Prestazioen Karteran ere. 2014ko abenduan erabaki zena ez da helburu honetarako baliagarria, ez baitu eskubide hori aintzat hartzen.
- Beharizan hauek osatzearen zerbitzu sozialetarako baliabide ekonomiko berriak kalkulatu eta planifikatu; honek sektoreotan enpleguaren hazkunde handia ekarriko luke.

4.-AZPIEGITURAK ETA INGURUMENA

Azpiegitura, lurralde-politika eta ingurumenari dagokienez egungo egoera jasangaitza da, ikuspuntu ekonomiko, sozial eta ekologikotik. Iraunkortasun sozial eta ingurumenekoa iristeko erabakiak hartu behar dira:

- Garraio publikoa hobetu, hartara biztanleria guztiak, ez bakarrik hiri handietakoak, kalitatezko eta modu oneko zerbitzua izan dezan; alegia, bera izan dadin alternatibarik egokiena.
- Garraio publikoan tarifa sozialak aplikatu: 16 urte bitartekoentzat doakoa, txartel familiarrak, langabeentzako bono sozialak, etab.
- Dauden errepideak hobetu, berririk egin gabe, eta mobilitatearekin lotutako beste politika batzuk garatu, lurzoru gehiago okupatzea azken aukera izan dadin.

- Errepideetako ordainsariak ezabatu.

■ Hondakinen jatorriko bilketa selektiboan eta birziklapenean %80ra iristeko konpromisoa. Lurralde guztira hondakinen jatorriko bilketa selektiboaren eredia hedatzea; honek dagoeneko %80tik gorako birziklapen tasak ematen ditu. Jatorriko bilketa selektiboa konbinatu konpostajearekin, balorizazio materialarekin eta ezabapen iraunkorrarekin.

■ Balorizazio energetikoa eta errauste-plantak behin betiko baztertu. Orain baliatzen ez diren materialak birziklatzeko proiektuak bultzatu, horrela birziklapen tasa gehitzeko.

- Lurraldean fracking-a eragotzi.

5.-ENPLEGU POLITIKA

a) Foru Aldundien esku dagoen enplegu-politika nagusia baliabide ekonomikoak biltzea da, politika sozialen beharrezko hobekuntza finantzatu ahal izateko. Honek enplegu ugari sortuko luke bizitza eta pertsonen zaintzarako zerbitzu publikoetan (osasungintza, hezkuntza, zerbitzu sozialak...).

b) Gainera, 3. puntuan aipatuenez, Foru Aldundiek ardura berezia dute dependenzia egoera guztien arretarako zerbitzu sozialen garapenak sortuko lukeen enpleguari dagokionez.

c) Datozen urteetan “enplegu berdeek” ere enplegua sortzeko lagungarri izan behar dute: ingurumenaren zaintza, degradatutako inguruak bere onera ekartzea, eredu produktiboaren aldaketa... Kasu askotan Aldundiei dagozkie horren inguruko eskumenak:

■ Energia: udalek trantsizio energetikoa egiteko laguntzak (energia berriztagarrien ekoizpen eta kontsumoa).

■ Garraioa: Industrialdeetarako mugikortasun planak, automobil partekatua bultzatu, garraio publikoko sarearen integrazioa.

■ Hondakinak: Arestian aipatutako hondakinen politika osatu beharra dago, berrerabilpena lehenetsiaz eta bigarren eskuko produktuentzako eta zerbitzu-trukerako merkatuak sustatuz.

■ Baso-politika iraunkorra eta agroekologia: Balio erantsi handiagoa duten espezieak landatzea babestu eta Aldundiek eskaintzen dituzten zerbitzuetan jaki agroekologikoak eskaini.

d) Enplegua sortzeaz gainera, Aldundiek enpleguaren kalitatea bermatu behar dute. Horretarako hitz eman behar dute ELAK Eusko Lege-

biltzarrera eraman duen prekarietatearen aurkako HLEa aplikatuko dutela.

6.-DEMOKRAZIA AREAGOTZEA, GARDENTASUNA ETA GIZARTEAREN PARTE HARTZEA

- Politika publikoak finkatzerakoan parte hartze sindikalerako bene-tako bideak eskaini. Eremu formalean berariaz errespetatu behar da erakunde bakoitzaren ordezkaritza maila.
- Genero-ikuspegia duten aurrekontu partehartzaileak.
- Erreferenduma parte hartzeko bide gisa erabili erabaki politikoak hartzerakoan, batik bat garrantzi handiena duten eta eztabaida sozialik biziena eragiten dutenetan.
- Arduradun politikoek hartuemanak (agenda) publikoak izatea.
- Agiri ofizialak eskuratzeko aukera bermatu. Informazio honek publikoaren eta erakunde sozialen eskura egon behar du.
- Bateriaezintasun erregimena zabaldu.

7.-ZORRAREN IKUSKARITZA

- Zor publikoaren herritar ikuskaritza bultza eta erraztu, eta ilegítimo-tzat jotzen den zatiaren ordaina atzeratu, berregituratu eta, dagokionean, ukatu. Zorraren ikuskaritza prozesu bat da zeinetan aztertzen den zorraren jatorria, zergatik sortu den, zertarako baliatu zen, noren mesedetan, gardentasuna, izan litezkeen irregulartasunak, etab. Prozesu sozial bat izan behar da, non administrazioek lagundu egiten duten beharrezko informazioa emanez.
- Erakundeak burujabe direla baliatu zor ilegítimoak ez ordaintzeko erabakiak hartzerakoan, hartzekodunen ardura nabarmenduz.

8.-EUSKARA

- Normalizazio plan eragingarriak abiarazi, herritarrei bermatuaz Aldundiek eskaintzen dituzten zerbitzuak euskaraz izateko eskubidea.
- Aldundietako langileek euskaraz lan egiteko duten eskubidea aintzat hartu, horretarako beharrezko diren baldintzak ezarriaz eta bitartekoak emanez.

9.-ARLO PUBLIKOKO LAN-BALDINTZAK

- Negoziazio kolektiborako eskubidearen berreskurapena. Alde bakarreko erabakiak ez hartzeko eta joko-arau demokratikoak aintzat hartzeko konpromisoa (gehiengoan araberako akordioak, etab.). Negoziazio kolektiborako benetako eskubidea berreskuratzea eta Administrazioek indarrean diren akordioetan alde bakarreko erabakiz aldatu dituzten edukiak leheneratzea.

- Enplegu publikoa sortu. Pertsonalaren ordezkapena lehen egune-tik; azken urteetan amortizatutako lanpostuak berreskuratu. Lanpostu estruktural eta baja begetatibo guztiekin Enplegu Publikoko Eskaintza deitu. Zerbitzu publiko guztietan dauden beharrak aztertu, pertsonal nahikoa ez duten arloak indartzeko. Zerbitzu publikoen pribatizazioa behala geldiarazi.

- Soldatak. 2010etik hona galdu den erosteko ahalmena berreskuratu.

- Azken urteetan galdutako lan-baldintzak berreskuratu. Galdutako baldintza guztien berreskurapena (aldi baterako ezintasunen osagarriak, norbere kontuetarako egunak, erretiro aurreratuko kalteordainak, BGAEetarako ekarpenak, etab.).

- Lan-segurtasun eta -osasunaren hobekuntza. Prebentzio arau guztiak betetzea Aldundien menpeko lantokietan, eta foru-erakundeek bultzatutako herrilanean ere betearaztea, behar adina bitarteko jarriaz legea aintzat hartzen dela ziurtatzeko eta arauak urratzen dituzten enpresak zigortuaz. Eragotzi mutualitateek gaixotasun arrunteko bajen kudeaketa eta kontrola beregana dezaten, eta egoera leheneratzea mutualitateei arlo honen ardura eman zaien kasuetan.

- Lan- eta famili-bizitza kontziliatzeko neurriak. Arlo honetan aurrera egiteko neurri konkretuak, zaintzaren erantzukidetasuna eta denboraren erabilera arrazionala sustatuaz (ordutegi malguak, langileen eskubideak bermatuaz...).

- Azpikontratutako zerbitzuak. Urratsak egin behar dira administrazioak zuzenean eskaini ditzan, aintzat hartuz egun diharduten langileek beren lanpostuan jarraitzeko eskubidea dutela. Dagozkion erabakiak hartu azpikontratutako langileen baldintzak (baita enpresa publikoetakoak eta Aldundiak partaide direnetakoak ere) parekatzeko enplegatu publikoen egoerarekiko.